**EBAZPENA, 2017(E)KO MARTXOAREN 1(E)KOA, GIPUZKOAKO ETXEBIZITZA SAILEKO ORDEZKARIARENA, ETXEBIZITZA ESKATZAILEEN ERREGISTROAN IZENA EMATEKO ESKABIDEAK, ERANSKINEAN ZERRENDATZEN DIRENAK, ARTXIBATZEN DITUENA EDO AIPATU ESKABIDEEI ALTA UKATZEN DIENA.**

**RESOLUCIÓN DE 1 DE MARZO DE 2017 DEL DELEGADO/A TERRITORIAL DE VIVIENDA EN GIPUZKOA POR LA QUE SE ARCHIVA o SE DENIEGA EL ALTA DE LAS SOLICITUDES DE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO DE SOLICITANTES DE VIVIENDA RELACIONADAS EN EL ANEXO.**

## AURREKARIAK

Eranskineko zerrendan agertzen diren bizikidetza-unitate guztiek eskabidea egin dute Etxebide – Babestupeko Etxebizitza Esleitzeko Zerbitzu Publikoko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan sartzeko.

## ANTECEDENTES DE HECHO

Todas las unidades convivenciales solicitantes incluidas en la relación anexa han solicitado su inscripción en el Registro de Solicitantes de Vivienda del Servicio Público de Adjudicación de Vivienda Protegida – Etxebide

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Ebazpen hau emateko organo eskuduna lurralde ordezkaria da, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurak arautzen dituen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak 2012ko urriaren 15ean emandako Aginduaren 23.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- Aipatutako Aginduak 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Erregistroko ebazpen horien jakinarazpena Eusko Jaularitzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) iragarki-oholetan argitaratuko da, beste edozein bide alde batera utzi gabe.

3.- Agindu horren 8 artikuluan daude finkatuta eskabide bat Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan altan emateko

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.- El/la Delegado/a Territorial es el órgano competente para dictar la presente Resolución en virtud de lo dispuesto en el artículo 23.1 de la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del Registro de Solicitantes de Vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico.

2.- El artículo 24.2 de la citada Orden establece que la notificación de las resoluciones en el Registro se efectuará a través de su publicación en los Tablones de Anuncios del Servicio Público de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco-Zuzenean sin perjuicio de la comunicación por cualquier otro medio:

3.- El artículo 8 de la Orden establece los siguientes requisitos para que una solicitud sea dada de alta en el Registro de



AENOR Empresa Registrada ER-1020/2006
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

betekizunak:

*a) Pertsona fisikoak edo bizikidetza-unitateak erosketa- edo alokairu-araubideko etxebizitzaren eskatzaile gisa inskribatu ahal izango dira Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan; betiere, indarreko araudiak etxebizitza horiek eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte eskaeraren egunean.*

*b) Alokairu-araubidean inskribatzeko, etxebizitza-premia dagoela joko da norbaitek Euskal Autonomia Erkidegoan jabetzan, azalera-eskubidean edo gozamenean etxebizitzarik ez badu.*

*c). Alokairu-araubidean babes ofizialeko etxebizitza bat, zuzkidura-bizitoki bat edo parekatutako etxebizitza bat duten pertsonak edo bizikidetza-unitateak araubide horretan edo erosketakoan baino ezin izango dira inskribatu, kontratua amaitu aurreko sei hilabeteetan*

*d) Inskribatzeko aldi baterako debekua duten pertsonak edo bizikidetza-unitateak ezin izango dira inskribatu, debeku horren indarraldia amaitu arte.*

4. Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 16. artikuluak, babes ofizialeko edozein etxebizitza eskuratzeko ezinbesteko baldintzak ezartzen ditu:

*1.– Babestutako etxebizitza-tipologia bakoitza eskuratzeko eskatutako baldintza espezifikoak gorabehera, babes ofizialeko edozein etxebizitza eskuratzeko ezinbesteko eta oinarrizko baldintzak*

Solicitantes de Vivienda:

*a) Las personas físicas o unidades convivenciales podrán inscribirse en el Registro de Solicitantes de Vivienda como demandantes de vivienda en régimen de compra o en régimen de arrendamiento, siempre que en la fecha de la solicitud cumplan los requisitos previstos por la normativa vigente para el acceso a tales viviendas.*

*b) Para la inscripción en régimen de arrendamiento, el requisito de necesidad de vivienda se entenderá referido a la carencia de vivienda en propiedad, derecho de superficie o usufructo en la Comunidad Autónoma del País Vasco*

*c) Las personas o las unidades convivenciales que disfruten de una vivienda de protección oficial en régimen de arrendamiento, de un alojamiento dotacional o de una vivienda asimilada solo podrán inscribirse en el mismo régimen o en el de compra, durante los seis meses anteriores a la fecha de finalización del contrato.*

*d) No podrán inscribirse las personas o las unidades convivenciales afectadas por una prohibición temporal de inscripción mientras no concluya el plazo de vigencia de ésta.*

4. El artículo 16 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, establece los requisitos necesarios para el acceso a cualquier vivienda de protección oficial:

*1.- Con independencia de los requisitos específicos que se exijan para el acceso a cada tipología de vivienda protegida, serán requisitos básicos y necesarios para el acceso a cualquier vivienda de*



AENOR ER Empresa Registrada ER-1020/2006
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

*izango dira:*

*a) Adin nagusikoa edo emantzipatua izatea.*

*b) Etxebizitza-premia izatea, horretarako ezarritako arauen arabera.*

*c) Euskadin erroldatuta egotea, gutxienez etxebizitzak izango duten titularretako bat.*

*d) Arauek ezarritako gutxieneko eta gehienezko diru-sarrerak betetzea.*

5.- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, hauxe ezarri du bere 68.1. artikuluan:

*"1.- Prozedura hasteko eskabidean ez badira betetzen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den berariazko legedian eskatutako beste batzuk, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren."*

6. Ebazpen honen eranskineko eskabideek ez dituzte baldintzak betetzen, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 16. artikuluak Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurak arautzen dituen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako

*protección oficial:*

*a) Ser mayor de edad o emancipado.*

*b) Tener necesidad de vivienda, en los términos que normativamente se establezcan.*

*c) Estar empadronado en el País Vasco, por lo menos uno de los futuros titulares de la vivienda.*

*d) Cumplir con los ingresos máximos y mínimos que se determinen normativamente.*

5- El artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, establece lo siguiente:

*"1.- Si la solicitud de iniciación no reúne los requisitos que señala el artículo 66, y, en su caso, los que señala el artículo 67 u otros exigidos por la legislación específica aplicable, se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.".*

6. La relación de solicitudes que figuran como anexo a esta Resolución no cumplen los requisitos establecidos en el artículo 16 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo en relación a la Orden de 15 de octubre de 2012 del Registro de Solicitantes de Vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen


AENOR ER Empresa Registrada ER-1020/2006
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

sailburuak 2012ko urriaren 15ean emandako Aginduarekin lotuta ezartzen dituenak.

Autonómico.

Adierazitako zuzenbideko oinarriak, aipatutako xedapenak eta beroien osagarriak direnak ikusita, hauxe

A la vista de los fundamentos expuestos, las disposiciones anteriormente citadas y demás concordantes y de general aplicación,

**EBATZI DUT:**

**RESUELVO**

Ebazpen honen Eranskineko zerrendan jasotzen diren eskabideei Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta ukatzea edo aipatu eskabideak artxibatzea.

Archivar o denegar el alta de las solicitudes de inscripción en el Registro de Solicitantes de Vivienda de la relación que figura en el Anexo a esta Resolución.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Izan ere, Etxebizitzako sailburuordeari aurkeztu ahal zaio ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

La presente Resolución no agota la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma recurso de alzada ante la Viceconsejera de Vivienda en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Donostia, 2017(e)ko martxoaren 1(e)an

San Sebastián, a 1 de Marzo de 2017

Fdo./Iz.: Ana Isabel Maruri Uriarte

GIPUZKOAKO ETXEBIZITZA SAILEKO ORDEZKARIA / DELEGADO/A TERRITORIAL DE VIVIENDA EN GIPUZKOA



AENOR Empresa Registrada ER-1020/2006
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM